

FRUITU LEHORRAK, AUKERA

Oskoldun fruta arbolak, euskal nekazaritzarako aukera bideragarria

 **NEKAZARITZA** / Xabier Izaga Gonzalez

Oskoldun fruitu lehorrak euskal lurraldeetan ezartzeko potentziala eta bideragarritasuna aztertzeko, Neiker Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeak, Añanako Landa Garapenerako Elkartek eta UAGAk lursail experimental bat abiatu zuten. Eraitza ezin argiagoa da: fruitu horiek euskal nekazaritzarako aukera handia dira.

Euskal Herrian gero eta fruitu lehor gehiago kontsumitzen da. 2020an, lau kilo inguru pertsonako. Hala ere, haien ekoizpena eskaria baino askoz txikiagoa da. EAEn kontsumitzen denaren %20 baino ez da ekoizten.

Laboreen dibertsifikazioa eta merkatu berrietara irekitzea helburu, abian da UTG Nogal lankidetza proiektua, UAGA Arabako Nekazarien Elkartek gidatua. Neiker Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeak eta Añanako Landa Garapeneko Elkartek 2019ko otsailean

Zanbranan, Arabako hegoaldean, fruta arbolaren produkzioa aztertzeko lursail experimental jarri dute. NEIKER

hainbat intxaurrondo landatu zituzten Zanbranako (Araba) lursail experimental batean, EAEn bideragarriak diren aztertzeko. Joan den hilean “Euskadi, fruitu lehorretarako aukera” informazio saioa antolatu zuten, oskoldun fruta arbolek, batez ere intxaurrondoek, lehen sektorerako duten potentziala erakusteko. Mota horretako laboreak landatzeak eskaintzen duen aukera horretan interesa duten 30 bat nekazarik parte hartu zuten ekitaldian.

LURSAIL EXPERIMENTALA
Proiektuaren koordinazio teknikoaz Neiker arduratu da, eta zentro teknologiko horretako Landare Ekoizpen eta Babese-ko Departamentuko ardura-



dun Amaia Ortizek azaldu dizkio GAUR8ri proiektuaren nondik norakoak, bere poztasuna disimulatu gabe.

Duela sei urte hasi ziren lanean, oskoldun fruituak ekotzi nahi zituen euskal enpresa baten eskaera zela-eta. Neikerrek artean ez zuen esperientziarik oskoldun fruta arbolen laborantzaz; beraz, hasieratik ekin zioten prozesuari.

Lehenengo ikerketan, EAEko ezaugarri agroklimatikoaren balorazio sakona egin zuten, azken 40 urteetako datuak erabiliz, eta labore mota horietarako egokitasun mapa bat atera zitzaion. Lurraldeko inguru bakoitzeko arriskua baloratu zuten, uzta galtzeko eta espeziearen produkzio potentzialera ez iristeko arriskua, alegia, eta oskoldun fruta arboletarako daturik hoberenak dituen ingurua Arabako hegoaldea dela ikusi zuten, Zabraña ingurua, hain zuzen. Horregatik, hantxe hasi ziren barietate ebaluaziorako lanak egiten. Orduan Añana Landa Garapenerako Elkartarekin, udalekin eta Zanbranako Administrazio Batzarrarekin bat egin eta han lursail esperimental bat jarri zuten, hiru fruta arbolaren produkzio ahala xehekiago aztertzeko: intxaurrendoa, hurritza-rena eta almendrendoa.

Fruta arbola horiekin lotutako merkatuaren azterketa bat ere egin zuten, eta oso aldeko baldintzak daudela ikusi zuten. Izan ere, Estatu espainoleko estatistiken arabera, urtean lau kilo inguru kontsumitzen dira pertsonako, horietatik kilo bat intxaurre. Gutxi eman lezakeela dio Amaia Ortizek, baina zenbaki horiekin ere, kontsumoaren %80 inportatu egiten dela. Euskal Herrian portzentaje bera dago. EAEn



%20 ekoizten da, baina ez da merkaturatzen, funtsean auto-kontsumorako baita: «Oso kantitate txikia ateratzen da merkatura hemen, oso-oso txikia». Horrenbestez, oso aukera handia dago fruitu hauen ekoizpenerako profesionalen lursailak jartzeko. Gainera, kontsumoak etengabe egiten du gora: %5 hazten da urtero.

Hazkunde horretan nabarmena da argitaratu diren zientzia artikuluen eta dibulgazio albisteen eragina, fruitu leho-

rrak osasunarentzat onuragarriak direla azaltzen baitute artikuluko horiek: arazo kardio-baskularrak, kolesterolekoak eta gisakoak dituztenentzat. «Horrek kontsumo handiagoa bultzatu du eta aukera ikaragarri handia zabaldu da; gainera, oso baldintza agroklimatiko onak ditugu eta aprobetxatu egin behar da», dio Ortizek.

UAGA elkartearen bidez, nekazari talde batekin elkartu ziren, oskoldun fruta arbolak landatzeko interesa baitzuten.

Arbolak landatu eta urte bira ateratzen diren lehenengo intxaurreak. NEIKER

Euskal Herrikan kanpoko beste lursail batzuk bisitatu zituzten, lursail horien baldintzak, beharrak... ikusteko. Hasieratik euren ezaguera eta emaitzak transferitu dituzte. Horixe da, hain zuzen ere, Neikerren apustua eta, Ortizek entzunda, baita grina ere: «Nik esan ohi dut gogoia ere transferitu dugula».

HIRU INTXAURRE BARIETATE

Orain Zanbranako hektarea bat baino gehiagoko sail esperimentalean ari dira. Bertan hiru intxaurre barietate jarri zituzten, inguruaren baldintza klimatikoak aintzat hartuta aukeratuak; hau da, izotzaldiak, laborearen egoera fenologikoa, ureztatzea, haren dosiak eta momentuak... eta egokitu beharreko inausketa mota: «Arbola nola gidatuko dugun oso garrantzitsua da, inausketa eskulan handia behar baita, eta guk lortu nahi dugu laugarren edo bosgarren urtetik aurrera hain eskulan handia eskatzen ez duen inausketa mota», azaldu du Ortizek.

Hiru intxaurre motak inguru tradizionalaren desberdinak diren leku banatan daude jarrita: «Hemen intxaurre sailetan 10 metroko distantzia dago arbola batetik bestera, eta gu askoz arbola gehiago jartzen ari gara, ia bi halako, euren artean bost metroko distantzia, eta ilara artean, zazpi». Horretarako, ureztatzea eta inausketa oso ondo egokitu behar dira.

Inausketa sistema bi dituzte, bat ardatz librekoa, arbolak luzeagoak izan daitezen, eta edalontzi itxurako inausketa, behean enbor sendoa eta goian hiruzpalau adar, edalontzi moduko bat osatzen dutenak. Ezberdintasun handia omen dago ekoizpenean inausketa-



ren eta ureztatzearen arabera, eta horixe ikusten ari dira orain: «Hiru urte eskas joan dira landatu genituenetik eta hiru barietateek ematen dituzte intxaurrak, eta inausketa sistema baten eta bestearen arteko desberdintasunak ikusten hasi gara dagoeneko», azaldu du Neikerreko arduradunak.

Ureztatzeari dagokionez, oso garrantzitsua dela dio, momentu kritikoetan arbolak ez baitu estres hidrikoan egon behar. Intxaurrondoak ur asko eskatzen du, baina ez da nahikoa inguru euritsu batean jartzeari; izan ere, ur kantitate hori momentu aipatuek behar du, intxaurrak handitzen ari direnean, hain zuzen; beraz, ureztatzeak eskatzen duenaren arabera izan behar du. Arreta handiz ikertzen ari dira ureztatze sistemak: tantakakoa, gomak lurrean zehar zabalduta dituen edo mikroi-hintzailuz altxatua, eta

lur azpiko ureztatzea, azken sailetan jarri dutena. Horietan uraren erabilera efizientea maximoa omen da. Ura noraino iristen den jakiteko sentso-reak ere jarri dituzte, ondoren nekazariari eskaintzeko datu ugari ematen dizkietenak.

MERKATURATZEKO EKIMENA

Labore horien bideragarritasunari dagokionez, ez dute zailtasunik batere, orain arte egindako ikerketa teoriko-praktikoen argitan. Eta «badi-ra pauso sendo bat eman duten nekazariak». Duela aste bi bost hektarea landatu ziren, baina 27 plantazio profesionaletik gora nolabait kontrolatu edo babestu dituzte dagoeneko «lagunduz, jarraipena eginez...». Momentuz Arabako hegoalde horretan ari dira gehienbat; hala ere, badakite beste zenbait ingurutan ere jarri dutela intxaurrondoa. Proiektu honek Añanako ne-

kazariari laguntzen die, bertan dituzte datuak eta ziurtasun handienak, baina Ortizek dioenez, eurek hor jarduteak ez du esan nahi beste leku batzuetan ez dagoela jartzerik.

Merkaturatzeko ekimenen bat ere abiatzeko pausoa ematea erabaki dute zenbait nekazari, modu pribatuan, beste batzuei eskaintzeko edo elkar-teak osatzeko asmoz.

Labore mota horrek uzta ondoko tratamendu fina behar du. Intxaurrak lurrera erorita-koan lehortu egin behar dira;

Fruitu lehorren oso kantitate txikia ateratzen da merkatura hemen; horrenbestez, oso aukera handia dago fruitu hauen ekoizpenerako profesionalen lursailak jartzeko

Nekazari txikientzat inbertsioa oso handia litzateke; beraz, nekazari talde bat sortzea da helburua, denek erabiltzeko makineria hori justifikatzeko moduko azalera izan dezaten

Inausketak eta ureztatzeak berebiziko garrantzia dute intxaur ekoizpenean.
NEIKER

tradizionalki eguzkitan lehortzen ziren, baina profesionalak direnean, oso ondo kontrolatu behar dira onddoak, besteak beste. Intxaurrak, esate baterako, uzta bibragailuz bota behar dira; beraz, makineria igaro eta lanak mekanizatu ahal izateko moduko landatze esparruak jarri behar dira. Intxaurrak lurrera erortzen direnean, batu, garbitu, 24 ordu pasatu baino lehenago lehortu eta neurtu egiten dira. Fruta arbola mota horretarako makinak berariazkoak dira eta nekazari txikientzat inbertsioa oso handia litzateke; beraz, nekazari talde bat sortzea da helburua, denek erabiltzeko makineria hori justifikatzeko moduko azalera izan dezaten, inbertsio horiei aurre egiteko.

Dituzten datu gehienak intxaurrondoari dagozkio, baina hurritzarenak eta almendrondoarenak ere badituzte. Hurritzaren zortzi barietate ebaluatzen ari dira. Urte asko ez direla hurritza Araban ugari ekoizten zen, baina haren laborantza pixka bat alboratu zen eskulan handia eskatzen zuelako, hurritza erruz muskiltzen den zuhaixka izanda, behin eta berriz inausi behar baita. Barietate horiek patroien baten gainean txertatzen dituzte eta kimatze ugari hori eragozten dute. Zenbait gida sistema aztertzen ari dira, zuhaixka barik zuhaitz izan dadin, edo zuhaixka izanda, adar asko eduki ez ditzan eta uzta mekanizatu ahal izateko.

Hurritzaren kasuan oraingoz ziurgabetasun handiagoa daukate, ez baitakite gida sistema horiekin nola eta zer kantitate ekoiztiko den eta pare bat urte itxaron behar da. Edonola ere, uste osoa dute hurritza ere benetako alternatiba izango dela.